

Mundu mailan hain garrantzitsu bihurtu den konfinamenduarekin egun osoan geunden etxean. Horri esker, pakete edo gutun bat entregatzen ziguten bakoitzean, ez geneukan inolako arazorik atea irekitzeko. Imajina dezagun egoera arrunt batean gaudela, ohikoena ez da etxean egotea momentu oro. Edo nahiz eta etxean batzuetan egon, egiten ari zaren hori bertan behera uztea, altxatu eta atea ireki beharra saihestea guztiz lagungarria izango litzateke.

Bide horretatik, postariak tinbrea jo ez dezaten, haiek soilik izango duten giltza bat sortzea bururatu zitzaigun. Postariei kodigo qr bat esleituko genieke app baten bidez eskuratuko luketeena.



Etxebizitza bakoitzeko portalean qr kodigoen eskaner bat egon beharko litzateke (tinbreak dauden plakan kokatuko genuke kamera bat qr irakurlea dena) eta qr kodigoa erakutsiz gero atea automatikoki irekiko zen.




Postariak zonaldeka sonaldeka antolatzen dira, beraz gure mekanismoa ere zonaldeka antolatuko da, zonalde bakoitzerako kodigo qr ezberdin bat izanez. Kodigo hori app-ak berak sortuko luke postariaren erabiltzailearen arabera. Beraz, postaria gutun bat entregatzean, portalera sartu ahalko litzateke eta horrela portalera sartu eta buzoi barruan sartuko luke gutuna, horrela bizilagunak eragotzi gabe.

Esandakoa kontuan hartuta, gure produktua postariei soilik zuzenduta egongo litzateke. Baina pentsatzen egon ondoren, gure ideia merkatu zabalago batera heldu behar zela erabaki genuen. Horretarako, produktua beste enpresa batzuei saldu beharko genioke. Portal garbitzaileetan pentsatu genuen, edo lorategia duten etxebizitzetan lorazainei, adibidez. Hauek mekanismo berdina erabiliko lukete, app-ean erabiltzaile bat izanez.

Beste alde batetik, hasiera batean, banatzaile enpresak alde batera uztea erabaki genuen, mekanismo hau haientzat baliagarri ez zela pentsatu genuelako, etxebizitza bakoitzean pertsonalki entregatu beharra dagoelako. Aurrerago, honelako enpresei gure ideia saltzeko moduen bila genbilela, hurrengo bururatu zitzaigun:

Aurretik azaldutako “giltza” berdina erabiliko lukete, baina hauek etxebizitzetara sartu behar ez izateko, gehigarri bat izango luke gure proiektuak: Portal bakoitzean buzoi handi bat kokatuko genuke, eta banatzailea paketea hor sartuko luke. Buzoi hau kode baten bitartez funtzionatuko luke, eta kodea sartuz dagokion tokian sartuko du. Postontziek pakete tamaina maximo bat izango dute, hortaz, ezarritako tamaina baino txikiagoak direnak utzi ahalko dira, baina handiagoak ez. Modu honetan,

eskaria egin duen bezeroari kode bat bidaliko zaio mezu baten bidez, eta hark kode hori buzoian txertatuko du, dagokion lekua zabaldu, eta hortik eskatutakoa har dezan.



Berezitasun gisa, gure bezeroen (postari, garbitzaile, lorezain, banatzaile...) lan orduetan soilik egongo da aktibaturik app-a (beraz ordu batzuetan soilik), horrela lan orduetatik kanpo ezin izango lukete erabili, eta beraz ezingo lirateke lapurtzera sartu.

Horrez gain, beste erabilera batzuk ere eman ahalko genioke, adibidez; kirol zentroetan (mekanismo bera erabiliz, app-ean erabiltzailea zentroko bazkide zenbakia sartuz eta alokaturiko pistako atea irekiz), edo lokalak alkilatzeke (lokal bat alkilatzean jabearekin geratu behar ez izateko gure produktua erabiliz errazagoa izango litzateke).

Aipatutako app-a guk sortu beharko genuke, eta erabiltzeko oso erraza izango zen. Postari bakoitza aplikazioan erabiltzaile bat izango luke eta app-ean sartzean zenbait galdera erantzunez gero (aisialdia: kirol-zentroak edo alokairuak eta lana: postaria, banatzailea edo lorezaina, garbitzailea), kodigo qr-a agertuko litzateke.



Aplikazioaren simulazioa aurkezpen baten bidez:
https://docs.google.com/presentation/d/1UTGLwKHdVSfrc7Ngf-_yB9znDV2WfqOIJ14SN7EESqw/edit?usp=sharing